

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako 62 enpresa Europako Bide Segurtasunaren Gutunera atxiki dira

Horiez gain, 50 langile baino gehiagoko zazpi enpresa saritu dituzte haien langileak trafiko-istripuetatik babesteagatik

Miércoles, 22 de febrero de 2012

Marta Vera Janín Osasun kontseilariak Europako Bide Segurtasunaren Gutunera atxikitzeagatik ziurtagiriak banatu ditu gaur goizean Nafarroako Lan Osasun Institutuan Nafarroako [62 enpresaren](#) artean, laneko trafiko-istripuak murrizten laguntzeagatik. Gainera, [50 langile baino gehiagoko zazpi enpresak](#) diploma bat jaso dute

azken urtean horietako langileek trafiko-istripu bat ere izan ez dutelako. Hauek dira enpresak: Industria Navarra de Servicios y Limpiezas, S.L.; Zabala Innovation Consulting, S.A.; Idifarma Desarrollo Farmacéutico, S.L.; MTS Tobacco, S.A.; M. Torres Ólvega Industrial, S.L.; Lys Alimentación, S.A.U.; y Técnicas y Servicios de Ingeniería y Control, S.L. (TESICNOR).

Ekitaldian hauek hartu dute parte: Cristina Ibarrola Guillén Osasuneko zuzendari nagusiak; Alberto Margallo Lana Nafarroako Lan Osasun Institutuko zuzendari kudeatzaileak; Juan A. Bronte Les Asepeyoren Nafarroako zuzendariak; eta Alberto Rojo Pérez erakunde horretako Segurtasun eta Higiene sailekoak. Horiez gain, Daniele Faccincari Europako Bide Segurtasunaren Gutunaren Espainiako ordezkariak bideokonferentzia bidez parte hartu du.

Nafarroako Lan Osasun Institutuak sustatu duen izenpe horren bidez biztanleak, enpresak eta tokiko erakundeak sentsibilizatzea da asmoa, lan-jarduerak eragindako joan-etorrietan gertatzen diren istripuen arloan. Gogorarazi behar da lanera joatean edo itzultzean gertatzen diren trafiko-istripuak (in itinere) zein lanaldian zehar gertatzen direnak (jardunean) Nafarroan heriotza eragiten duten istripuen % 50 eta istripu larri edo oso larrien % 20 baino gehiago direla, Nafarroako Lan Osasun Institutuak emandako datuen arabera.



Taldeko argazkia kontseilaria aurreko lerroan dela

Verak esan duenez, 2011ko azken hiruhilekoan, trafiko-istripuak lan-istripuen % 6,5 izan ziren Nafarroan. 156 "in itinere" izan ziren, baina ez zuten heriotzarik eragin. Kontseilariak zera azpimarratu du: "Espainian trafiko-istripuengatiko biktimen kopurua erdira murriztea lortu da, % 53ko murrizketa alegia". Gainera, "errepideetako heriotza kopurua gelditzeko konpromisoa hartua duten erakundeen kopururik handiena duen Europar Batasuneko herrialdea da".

2.100 atxikipen sei urtean

Europako Bide Segurtasunaren Gutunaren alde 2006an egin zen eta, orduz geroztik, 2.100 erakunde atxiki dira (multinazionalak, enpresa txiki eta ertainak, elkarte profesionalak edo instituzioak), guztira 253,3 milioi langile inguru.



Ezkerretik eskuinera: Bronte, Margallo, Vera, Ibarrola eta Rojo